



EUROPAR LEGEBILTZARREKO ASKATASUN ZIBILAK ETA SEGURTASUN ETA JUSTIZIA KOMISIOARI

SEGURTASUNA INDARTU MEHATXU BERRIEN AURREAN

Sarrera

Europa ireki eta seguru bat eraikitzea: Europako Batasunaren funtsezko helburuetako bat izan da beti barne-mugarik gabeko esparru bat sortzea, non pertsonak modu askean ibiltzeko, bizi izateko eta lan egiteko aukera izango zuten, norberaren eskubideak osoki errespetatuko zirela eta segurtasuna bermaturik egongo zela jakinda. Gaur egungo errealitatea, ordea, urruti dago hasierako helburu hartatik. Oraingo agenda europarra inoiz baino zurrunagoa eta gizagabeagoa da, ahulenak artatzeko orduan, bai mugen barruan jaiotakoak, bai gerran dauden herrialdeetatik iheska hona asilo eta bizi-laguntza eske datozenak. Eredu antisoziala agerian geratu da azken urteotako krisi humanitariorik larrienaren aurrean, errefuxiatuen krisiaren aurrean, alegia.

Ertzaintzaren oraingo egoera

Eusko Langileen Alkartasunak (ELA), Ertzaintzaren sindikatua den aldetik, idazki honen bidez azaldu nahi dio Europako Legebiltzarreko Justizia eta Barne-arazoetako Batzordeari zein baldintzatan egin behar duten beren lana ertzainek.

a) Laburpena, Ertzaintzaren lan-arloan terrorismo yihadistak duen egoerari buruzkoa.

2001eko irailaren 11tik, New Yorkeko dorre bizkietan atentatua egin zutenetik, polizia-esparruaren ikuspuntutik aldaketak antzeman genituen ekintza terroristetan, azkenaldian egileak ekintza bakar bat burutzera joan ohi dira. Komando txikiak dira, mugikortasun handikoak, eta xede bakar batekin; hori dela-eta, errazagoa da ekintza burutzea, eta zailagoa komandoa lokalizatzea eta neutralizatzea.

Ordura arte ekintza terroristek eragozpen handi bat zuten ekintzak burutu eta gero, egileentzako ihesbidea prest egon behar zen. Baina azken ekintzetan komando suizidak izan dira eragileak; beraz, motibazio integrista-erlijioso horrek jokabide berria dakar, eta itsua bezain eraginkorra denez edozein helburu edozein baldintzatan finkatu daiteke, denak baitira gauzatzeko modukoak.

2004ko martxoaren 11ko Madrilgo atentatuak are argiago utzi zituen gauzak, ondoko egunetan egileetako batzuek beren buruaz beste egin zutenean.



Azken hamalau urte hauetan ugariak izan dira atentatuak; nahiz eta gobernuek eta nazioek, ekintza terroristak ekiditeko, egundoko ahaleginak egin.

Ertzaintzari dagokionez, eta 2012ra arte, terrorismo yihadistarekiko ez zegoen aparteko ardurarik, zeren ahalegin guztiak ETaren terrorismoari begira zeuden jarrita.

ETAk su-etena aldarrikatu ondotik, Herrizaingo Sailak, orain Segurtasun Sailak, erantzun oso mugatu bat eman zuen Yihadismoaren inguruko talde txiki bat sortuz; dena dela, gaur egun talde horren eragina eta jarduna hutsaren hurrengo dela esan daiteke.

Arazo horrekiko hartu diren neurriak oso mugatuak izan dira, arabierazko eskolak ematen saiatzera bakarrik. Gainera, eskola horiek ez dute iraun luzaroan, eta ondorioz 4 ertzainek hitz egiten dute hizkuntza hori nolabaiteko etorriaz (bik ama-hizkuntza gisa hitz egiten dute, eta beste biek hizkuntza ikasia gisa).

Ertzainek jaso duten prestakuntza bakarra Polizia eta Larrialdietako Akademian ertzain-buruentzat emandako hitzaldi batzuk izan dira. Gero, ertzain-buruek zabaldu behar izan diete gainerako ertzainei hitzaldietan entzundakoa.

Ez dago protokolorik, ez jardunbiderik, ezta arriskuaren pareko ekipo egokirik ere. Tamaina horretako terroristei zorte onaren “dohaiaz” egin behar diete aurre.

Ertzainek maiztasunik gabe egiten dituzte tiro-ariketak; baina batez bestez 7 urterik behin izaten dira, edo are bakanago ere izan litezke.

Adibide bat jartzearren: gure arauzko armak hauek dira: pistola semiautomatiko bat, eta arma luze gisa posta-eskopeta bat, bost kartuxorekin eskuz kargatzekoak. Horrelako armak ez dira inola ere egokiak terrorista yihadistek erabili ohi dituztenei erantzuteko. Horiek eskuarki AK47 arma luzeak erabiltzen dituzte, 600 bala minutuko jaurtitzen dute 440 metrora iritsiz, semiautomatikoaren kasuan; eta 300 metrora automatikoetan.

Ez da gehiago egitura blindatuko ibilgailurik hornitzen, eta geratzen direnei leihoetako beira blindatuak kendu eta serieko beira ijeztuak jarri dizkiete.

ELA sindikatu honek askotan eskatu dio idatziz Segurtasun Sailari bilerak egiteko, egoera ikuspegi guztietatik aztertzeke; baina alferrik izan da.

Profesionalak garen aldetik ikusten dugu Segurtasun Sailak ez duela benetako interesik yihadismoaren ondoriozko arazoei aurre egiteko, eta egiten dituen mugimendu bakarrak erreakzio mediatikoaren eraginez egiten dituela.

Baliteke Euskadi uharte “magikoa” dela, eta auskalo zergatik autobabesturik dagoela. Europa osoan alarma-maila 4an (5etik) zegoen bitartean, hemen Euskadin Segurtasun sailburuorde Josu Zubiagak 2 mailara jaitsi behar zela esaten zuen.



Tamalez, astebete geroago, Parisko atentatua gertatu zen, eta alarma-maila jaisteko eskatzen zuen sailburuorde hori bera Pariserantz abiatzen zen, han argazkietan agertzeko, Europako polizien arteko koordinazio handiagoa eskatuz.

ELA sindikatua EUROCOPEko eskubide osoko kide da (Poliziakide Europarren Nazioarteko Antolakundea). Antolakunde horrek Europako 27 herrialdetako 500.000 agente baino gehiago ordezkatzeko ditu.

2012. urteaz geroztik proposamen batzuk helarazi ditugu Bruselara EUROCOPE bitartez, han, Europako Parlamentuko Segurtasun Batzordean, non zu talde iraunkorreko kide zaren, kontuan har ditzaten.

Ukaezina da Europa Batasun osoari segurtasuna eta kanpoko mugetako kontrola bermatu behar dizkioten herrialdeak krisi ekonomikoaren eraginik gogorrena pairatzen duten berberak direla; hori dela-eta, segurtasunean egiten diren inbertsioak izugarri murriztu dira.

Polizia-agenteen kopurua %7 jaitsi da, hainbat faktoreren ondorioz (erretiroak, baja begetatiboak, lan-utzialdiak/eszedentziak eta sarbide-deialdirik eza).

Materialean eta babes-ekipoetan (banakoak eta kolektiboak) egindako inbertsioa txikia baino txikiagoa izan da Ertzaintzan.

Poliziaren interesa bat bera da Europa osoan, eta hiru oinarri izan behar ditu:

Lehenengoa: protokoloak, jarraibideak eta ebazpenak berdinak izan behar dira batasuneko kide guztientzat.

Beti ere premisa baten pean: atentatuak ez dira erabili behar errepresiozko agendak zurrizko, funtsezko eskubide eta askatasunen arloan; zeren kezka handiz ikusten dugu zenbait lider politikok, horrelako atentatu lazgarrien ondoriozko shock-az baliaturik, goraldi militarrek eta erreakzio xenofoboak bultzatzen dituztela, errugabeen sufrimendua eragiten dutenak, gehienetan gure etxeetatik urrun. Gure iritziz horrelako egoerei heltzeko politikak segurtasuna bermatzeaz haraindi joan behar dira. Horregatik gure eskakizuna mundu-agenda bat prestatzea da, herriei bakea eta justizia eskaini behar diena. Siria, Irak, Afganistán... herrialdeetatik datozen errefuxiatuen hondamendia proba nahikoa da konponbide politiko baten beharra ikusteko, eta baita pertsona horien guztien giza eskubideak errespetatzen dituen kudeaketaren beharra ere.

Aldiz, Europa osoko gobernuek erreakzioz erantzuten dute atentatu terroristen ondorioz. Horrela, kanpo-mugarik ez duten herrialdeek hartzen dituzten neurriak ez dira baliagarriak kanpoko ertzean daudenentzat. Hortaz, Europako Parlamentuak jardute-protokoloak taxutu beharko lituzke, agenteek egoera berdinetan erantzun berdinak eman ditzaten. Jarraibideak eta ebazpenak nahitaez bete beharrekoak izan behar dira batasuneko kide guztientzat, eta haiekin batera baliabideak ere, diruzkoak



eta pertsonalezkoak, eskaini behar dira xedapenak betetzeko modukoak izan daitezzen.

Bigarrena: Informazio-zentro bat eta datu-base bakar bat, Europako Batasuna osatzen dugun polizia guztientzat.

Europa batasun bat baldin bada, konfiantza eta berdintasuna bezalako printzipioetan oinarritu behar da. Horretarako, Europako polizia guztiok datu-base bakar bat eduki behar dugu, denontzat laneko parametro berberekin, eta denon eskueran.

Hirugarrena: Ekipo funtzionala (EPlak), prestakuntza eta espezializazio komunak.

Behar-beharrezkoa da azken urteotako murrizketa-politikak alde batera uztea, eta pertsonalaz zein baliabide materialez hornitzea, herritarrei kalitatezko zerbitzu publiko bat bermatzeko neurriak benetan bete daitezzen.

Gaur egun, globalizazioa dela-eta, jabetu ahal izan gara beste arazo batez, polizia-agenteentzat gero eta larriagoa den arazo batez: lan-materialaren ekipoa eta uniformetasuna.

Polizia-agente batzuek (udaltzainek) ez dute babes-txalekorik, ez dute arma luzerik (lehen aipatu bezala). Armak erabiltzeko prestakuntza barregarria da, eta politikariei ezin izan diegu sinestarazi egoerari buelta emateko beharra. Azkenik uste dugu lantalde espezializatuak osatu behar direla, prestakuntza uniforme baten arabera, lankidetzan eta elkarlanean aritzeko modukoak izan daitezzen. Bistakoa denez beharrezkoa da segurtasunaren eta auto-babesaren neurriei buruzko argibide zehatzak ematea, arrisku-maila bakoitzean, eta aldi berean pertsonalari prestakuntza egokia eman behar zaio, erronka berri honi behar bezala erantzun ahal izateko.

Informazio, baliabide eta ezaguera gehiago behar dira mehatxu honen aurrean, eraginkorrakoak izateaz gain, islamofobia, ezaguera faltagatik edo beldurragatik, agenteengan errotu ez dadin.

Prestaturik egon behar gara gure gizarteari babesa emateko, baina horretarako, behar bezain ondo ekipaturik egon behar gara, gure segurtasunetik herritarrak babestu ahal izateko.

Madrilén, 2016 ko Otsailak 22an